



ALKATE DEKRETUA

Nik, Iزارo Elorza Arregui Oñatiko Alkatea naizenez eta Toki Korporazioetako Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridiko Erregelamenduak ematen dizkidan ahalmenetan oinarrituz ondorengoa agintzea erabaki dut:

Artikulu hauetan xedatutakoa betetzeko: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22. eta 46. artikulua; Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea; eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 79., 80 eta 82. artikulua.

2021eko abenduaren 16an onartutako saioen egutegia ikusita.

Alkate-udalburua naizenez, bai eta toki-araubidea arautzen duen indarreko araudiak ematen dizkidan ahalmenak ikusita,

Erabaki dut:

Udalbatzaren ohiko bilkurarako deia egitea. Bilkura hori udal honetako Osoko Bilkuren Aretoan egin beharko da, 2022ko uztailaren 21ean, 18:30etan, lehen deialdian, eta bi egun geroago eta ordu berean, bigarrean. **Gai-zerrendako gai hauek aztertuko dira:**

1. Onartzea, hala badagokio, 2022-06-30ko ohiko osoko bilkuraren akta, (6.2022).
2. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Udal interes edo erabilera berezikotzat hartzea zerrendatzen diren eskatzaileen obrak, Ogasun Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 5ean.
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena: Armarri eta bandera aldaketaren hasierako onarpena ematea, Kultura Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 11an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udalaren eta Gipuzkoako Ur kontsorzioaren arteko hitzarmena onartzea, Arantzazuko ur hornidura sistema hobetzeko, zerbitzuak eta landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 12an.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Araotz auzoak Oñatiko Udalari egiten dion 10 urterako ostatuaren donazioa onartzea, zerbitzuak eta landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 12an.
6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Oñatiko Udala eta Araozko auzoaren IV. lankidetzaren hitzarmena sinatzea onartzea, urbanizazioa gauzatzeko zerbitzuak eta landa garapen Informazio Batzordean diktaminatua 2022ko uztailaren 12an.
7. Hala badagokio, presako gaiak.
8. EH Bildu taldearen mozioa: Osakidetzako herrietako anbulategien itxieraren aurkako eta osasun sistema publikoa indartzea eskatzeari buruzkoa.
9. EAJ taldearen mozioa: osasun sistema publikoa indartzeari buruzkoa.

10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2022ko ekainaren 25etik 2022ko uztailaren 15era bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 802 zenbakitik 881 zenbakira.
12. 2022ko Toki Gobernuko Batzordeen akten berri ematea (17. eta 18. saioak).
13. Galderak eta eskaerak.

Jakiniraz bekie berehala Udalbatzako zinegotzi guztiei, eta ohartarazi Idazkaritzan eskura dutela gai-zerrendan jaso diren aztertu beharreko gaiei buruzko dokumentazioa, eta, arrazoi justifikaturen bat dela-eta bilkurara joaterik ez badute, alkate-udalburuari jakinarazi beharko diotela, behar besteko aurrerapenaz.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut

Oñatin, 2022eko uztailaren 18an
Alkateak
Izaro Elorza Arregui

